

2006-04-04ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta sei urteko apirilaren lauan, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza Aretoan, ohizko batzarra egin zuen Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru zuela.

Agustin Zubeldia Iraola, M^a Jesús Otaño Zumeta, , Eugenio Loidi Garmendia, Jose Luis Olano Zubeldia eta Gregorio Lasa Etxezarreta zinegotziak izan ziren bileran.

Aitor Lasa Olalde zinegotzia ez zen bertaratu.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin zituen idazkari-lanak.

Alkateak bilkura publikoa ireki zuen; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi zuen bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baitzen.

1. PUNTUA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (06-03-07).

2006ko martxoaren 7ko ohiko saioaren, aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki zuen Udalbatzak hau onartzea.

2. PUNTUA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Aho batez erabaki zuen Udalbatzak Alkatezaren dekretu hauen berri jaso izana adieraztea:

-06/02/23ko 23/06 Dekretua: udal langileei aparteko orduen ordaina ematea.

-06/02/23ko 24/06 Dekretua: Fco. José Artolari udal-baimena ematea leihoak aldatzeko obrak egiteko.

-06/02/23ko 25/06 Dekretua: etxez etxeko laguntza zerbitzua jartzea 110-Eri

-06/02/27ko 26/06 Dekretua: M^a Angeles Cabezas liburutegiko laguntzailea kontratatzea.

-06/03/02ko 27/06 Dekretua: Paska Vazquezi udal-baimena ematea etxeko obrak egiteko.

-06/03/02ko 28/06 Dekretua: M^a Soledad Zubeizuri udal-baimena ematea etxeko teilatua konpontzeko.

-06/03/02ko 29/06 Dekretua: Nekazari kaleko zigilatze lanak egiteko udal baimena ematea Pablo Barcosi.

-06/03/02ko 30/06 Dekretua: eztanda baten ondorioz eginiko kalteak eraberritzeko udal-baimena ematea Angulas Aguinaga S.A.-ri.

-06/03/02ko 31/06 Dekretua: Katategi Bailara 1eko arrapala kentzea.

-06/03/06ko 32/06 Dekretua: otsaileko fakturak onartzea. Kopurua: 17.972,98 €

-06/03/07ko 33/06 Dekretua: Iñaki Arregi Garitanori lan-kontratu berria egitea.

-06/03/08ko 34/06 Dekretua: behin betiko onarpena ematea Arau Subsidiarioen 26' zonaldeko urbanizazioari.

-06/03/14ko 35/06 Dekretua: LINDE SEYCEri eskatzea jarduera burutzen duen ingurunea garbi edukitzea.

-06/03/14ko 36/06 Dekretua: IRU VEHICULOS INDUSTRIALESi eskatzea

jarduera burutzen duen ingurunea garbi edukitzea.

-06/03/14ko 37/06 Dekretua: Laskibar Bailara 17an galdaragintza jarduera arauen barnean jartzeko eskaera.

-06/03/14ko 38/06 Dekretua: Katategi Bailara 1ean jasomakinen konponketa, salmenta eta alokatze jarduera arauen barnean jartzeko eskaera.

-06/03/15ko 39/06 Dekretua: Landarri S.L.-ri hitzarmena berritzea hilerriko ustiapena eta kudeaketagatik.

-06/03/15ko 40/06 Dekretua: Muguruza S.L.-ri hitzarmena berritzea arratoi eta saguen aurkako mantenu zerbitzuagatik.

-06/03/15ko 41/06 Dekretua: Sare-Berri S.L.L.-ri informatikako mantenu zerbitzuagatik hitzarmena berritzea.

-06/03/15ko 42/06 Dekretua: egurra garraiatzeko udal-bideak erabiltzeko baimena ematea Antonio Lasari.

-06/03/21ko 43/06 Dekretua: Kontxi Elexperi ondasun higiezinaren gaineko zergan hobaria ematea.

-06/03/28ko 44/06 Dekretua: gizarte larrialdiko laguntza ematea 10-E eta 134-E espedientei.

-06/03/29ko 45/06 Dekretua: egurra garraiatzeko udal-bideak erabiltzeko baimen berria ematea Antonio Lasari.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

3. PUNTUA

HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, UDAL-ORDENANTZARI, BASO-PISTEN ETA UDAL-BIDEEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUENA.

Baso-pisten eta udal-bideen erabilera arautuko duen Udal-ordenantzaren proposamenaren berri eman zuten.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa jarraituko dute.

Beraz, eztabaidaren ondoren, Udalbatzak honakoa erabaki zuen aho batez:

Lehen.- Baso-pisten eta udal-bideen erabilera arautuko duen Udal-ordenantzari hasierako onespina ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendearen informaziorako eta interesdunen entzunaldirako jarriko da hogeita hamar lanegunez, erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunak aurkezten badira, beraiei buruzko ebazpena emango da eta behin betiko onarpena emango zaio udalbatzarrean.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betirako onartutzat joko da. Horretarako, ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, goian aipatutako legearen 70.2 artikuluari jarraiki.

Akordio hau izapide-egintza hutsa da. Ezin da beraren aurka errekurtsorik ezarri.

4. PUNTUA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2006ko EKONOMIA-EKITALDIKO DIRU-EKARPENA TOLOMENDIRI.

Udalbatzak erabaki zuen aho batez 2006ko jarduera ekonomikoari dagokion ekarpen gisara 2.142,29 € ordaintzea Tolomendiri.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren

aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

5. PUNTUA

2006ko JARDUERARAKO GIPUZKOAKO UR-PARTZUERGOARI EGIN BEHARREKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez erabaki zuen Gipuzkoako Ur-Kontsortzioari 22.810,52 euroko ekarpena egitea azpiegiturak finantzatzeko, eta erabakitako moduan ordaintzea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

6. PUNTUA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO ZABOR BILKETA ZERBITZUAREN PREZIOAK EGUNERATZEA.

Indarrean dagoen etxez etxe zabor bilketaren hitzarmenak prezioak eguneratzeko klausula bat dauka. Eguneratze hau EAeko urteko kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera egingo da eta urte bakoitzeko urtarrilaren lehenarekin jarriko da indarrean.

Udalbatzak, iaz, 2005eko uztailaren 26an, hitzarmenaren prezioa eguneratzea erabaki zuen. EAEn KPIren igoera %3,7 izan zen 2005ean.

Beraz, idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki zuen honakoa:

Etxez etxe zabor bilketa zerbitzuaren hitzarmenari dagokion hileroko prezioa hauxe izango dela, 2006ko urtarrilaren 1etik hasita:

- Oinarria (2.107,69 € x 1,037): 2.185,68 €
- BEZ (%7): 153,00 €
- Guztira prezioa: 2.338,68 €

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Hurrengo gaia aztertzerako, José Luis Olano udalbatzarrera azaldu zen.

7. PUNTUA

AKORDIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TRAFIKOKO ISUNEN POLITIKA DELA ETA.

Idazkari-kontuhartzailearen txostenaren berri eman zitzaizen guztiei. Txostena alkateak eskatuta egin zuen. Gaia: trafiko eta bide-segurtasuneko gaitan udalaren zehapen-jarduera.

Eztabaidaren muina hauxe izan zen: egokia den ala ez udalak isunak jartzea, eta zehazki, salaketen parteak egiten dituen udal-langilea egokiak den ala ez.

Marimi Ugalde alkateak adierazi zuen, txostenean garbi agertzen zela udal-jarduera legezkoa zela, eta udal-langileak lan hori egiten jarraitu nahi bazuen, ez zegoela arazo legalik.

Jose Luis Olano zinegotziak adierazi zuen ezin zela zalantzan jarri salaketak jartzen dituen udal-langilearen jarduera eta udalerriko pertsonarik neutralenetakoa zela; udal barruko eztabaida zela eta etxe barruan konpondu beharrekoa.

Marimi Ugalde alkateak hiru irtenbide mahaigaineratu zituen: oraingo

moduan jarraitzea, Ertzaintzari deitzea zerbitzu hori eman zezan edo multarik ez jartzea. Azken aukera deskalabrua izango litzateke. Hiritarren esku omen dago arau-hausterik ez egitea.

Eugenio Loidi zinegotziak adierazi zuen oraingo moduan jarraitzea izango dela onena.

Beraz, gaiari buruzko erabakirik hartu gabe geratu ziren.

8. PUNTUA

GALDERAK ETA ESKARIAK.-

Galdera eta eskarien tartean honako gaiak aztertu ziren:

a) Alkateak adierazi zuen eskaera bat egin zutela industrialdean Tunning kontzentrazio bat egiteko.

Eskaera egin zutenekin hitz egitea eta ondoren dagokion erabakia hartzea adostu zuten.

b) Alkateak adierazi zuen eskaera bat egin zutela asteburuan Loatzo plazan zirko bat jartzeko.

Baldintza batzuk jartzea adostu zuten: fidantza, ibilgailurik ez uztea plazan edo bizitegi-gunean, eta bestelakoak.

c) Alkateak frontoiko obraren egoeraren berri eman zuen eta adierazi zuen urbanizazio lanak orain hasiko zituztela.

d) Alkateak adierazi zuen aurten hasi nahi zituztela Etxesa pabiloia zenean osasun zentro berriaren obrak.

Era berean, adierazi zuen lehengo jabeak makina batzuk utzi zituela eta ea zer egin behar zuten haiekin. Gordetzea erabaki zuten.

e) Alkateak adierazi zuen herriko hainbat kale eta plaza berri izendatzeko premia zagoela, Laskibar zonaldean batik bat.

Honen aurrean, Laskibarreko barrualdeko urbanizazio-plazari “Laskibar Parkea” deitzea erabaki zuten.

Aztartzeko beste gairik ez zegoenez, 22:10etan amaitu zen bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN du.